

‘BELDUR BARIK 2011’ KANPAINAK BERDINTASUNAREN ALDE ELKARTUKO DITU EUSKAL ERAKUNDEAK, UNIBERTSITATE PUBLIKOA ETA IKASTETXEAK

- **Euskal gazteen artean berdintasunezko harreman afektiboak eta sexualak eta indarkeriarik gabeak sustatzea da programaren helburua.**
- **Azaroaren 26an ‘TOPAKETA 2011’ izango da Donostian. Jai giroko sentsibilizazio eguna izango da, gazteen eta talde nahiz elkarte feministen topagunea.**
- **Beldur Barik! Berdinsarea Sarearen ekimena da. Sareak 52 udalerrri biltzen ditu berdintasunaren alde, eta euskal herritarren %75 ordezkatzeko du.**

Donostian, 2011ko azaroaren 22an. “Beldur Barik / Sin miedo” lelopean, eta ‘puntu lila’ ikurrarekin, 25N (Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna) ospatzeko euskal erakundeek prestatutako kanpaina lankidetzaren eredia da, bai eta sareko lanaren eredia ere. Gainera, urtetik urtera gero eta atxikimendu gehiago lortzen ditu.

Eudel, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta hiru herrialdeetako Foru Aldundiak dira sustapen lan koordinatuaren arduradunak. Aurreko edizioetan bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta EITBk kolaboratzaile gisa bat egingo dute kanpainarekin.




‘Beldur Barik!’ programak urte osoan izan nahi du jarraipena, eta baita gizarteko alor guztien parte-hartzea ere. Ildo horretatik, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) topaketa eta sentsibilizazioa bultzatzeko hiru jardunaldi antolatu ditu aurrean, hiru campusetan. Arrakasta handia izan dute, parte-hartzeari dagokionez, ikasle gazteen artean.

‘Pre-encuentros/Aurretopaketak’ urria eta azaroa bitartean izan dira, eta kulturaren eta aisiaren alorreko hainbat eta hainbat jarduera antolatu dira Beldur Barik! Kanpainaren inguruan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren koordinazioaren bitartez, bigarren hezkuntzako euskal ikastetxe askok ikasgeletan landu dituzte kanpainak helarazten dituen mezuak.

Kanpainaren helburuak



EAEn 2010. urtean genero indarkeriaren biktima izan ziren emakumeen %36, gutxi gorabehera, 30 urtetik beherako emakumeak izan ziren. Beraz, gazteriarengana jotzea lehentasunezko kontua dela ikusirik, indarkeria egoerei aurre hartzea eta 12 eta 25 urte bitarteko emakume gazteekin lan egitea bilatzen du ‘Beldur Barik! 2011’ kanpainak.

Programaren helburua da emakumeen aurkako, eta, bereziki, gazteen aurkako gaur egungo desberdintasun egoerari aurre egitea, eta errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeriaren arbuio sendoan oinarritutako jarrera eta jokabideekin erantzutea.

‘Topaketa Beldur Barik 2011’ Jaialdia. www.beldurbarik.org



‘Beldur Barik!’ lehiaketaren bigarren edizio honek izugarrizko arrakasta izan du, parte-hartzeari dagokionez: **260 lan** aurkeztu dituzte euskal neska-mutil gazteek. Hori ikusirik, **azaroaren 26an** ‘Topaketa Beldur Barik 2011’ jaialdia ospatuko da **Donostian**. Topaketa horretan, neska gazteek hainbat talde feministen esperientziak ezagutu ahal izango dituzte, eta berdintasunaren alde egiten ari diren ekimenak zabaltzeko plataforma gisa ere balioko die.

26ko **‘Topaketa’** goizeko 11:30ean jarriko da abian, eta egun osoa iraungo du, jarduera-egitarau trinko baten bitartez: tailerrak (autodefentsa, nola ligatu...), musika kontzertuak, trukeak, herri-bazkaria... Jaialdiko jarduera guztiak Donostiako **‘Emakumeen Etxean’** (Okendo kalea 9) izango dira, izan ere, espazio horrek indar sinboliko handia du, hiriko emakume taldeek osatzen duten ehunaren egoitza baita.

Jaiari amaiera emateko, kalejira bat antolatu da ‘Topaketan’ parte hartuko duten talde guztiekin; Kursaaleraingo joango dira kalejiran, eta han, 20:00etatik aurrera, ‘Beldur Barik 2011’ Lehiaketaren sariak banatuko dira. Musika emanaldiak izango dira, eta baita lehiaketan parte hartu duten neska-mutilen lanak eta emanaldiak ikusteko aukera ere.

25N eguneko kanpainari buruzko informazio guztia www.beldurbarik.org webgunean aurki daiteke. Irailaren 1ean martxan jarri zenetik **40.000 bisita baino gehiago** izan ditu, eta bertan daude jasota ‘Topaketa 2011’ osatuko duten jardueren egitaraua eta ‘Beldur Barik’ II. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak (bideoak, argazkiak, marrazkiak...).

‘TOPAKETA 2011’ EGITARAUA. Azaroak 26

Emakumeen Etxea (Okendo kalea 9. Donostia)

GOIZEAN

> 11:15 Ongi etorria, gosaria eta bista gidatua

> 12:00etatik 14:00etara. Aldibereko tailerrak

//Autodefentsa feminista, gure aldarria eta jarduna (emakumezkoak bakarrik)

// Feminista naiz eta harro nago!!! (emakumezkoak bakarrik)

// Txapa-tailerra (emakume eta gizonezkoak)

EGUERDIAN

> 14:00. Self-service bazkari feminista

> 15:30etik 16:30era. ‘De espaldas al patriarcado’ musika emanaldia
(madrildar egile abeslari gazteak)

ARRATSALDEZ

> 16:30etik 18:30era. Aldibereko tailerrak

// Ekintza Zuzena Feminista (emakumezkoak bakarrik)

// Ligatzean ez okerrik egin (emakume eta gizonezkoak)

// Riots not diets: emakumeak eta musika, DJ tailerra (emakumezkoak bakarrik)

> 19:00etatik 20:00etara. **Kalejira** Ondarru, Ermua, Basauri, Mamiki, Gasteiz eta Durangoko Emakume Bandekin. **Ibilbidea: Emakumeen Etxea-Kursaal Zentroa.**

> 20:00etatik 21:00etara. **Sari Banaketa Kursaalen.**

> 21:00. **Kontzertua:** ‘De espaldas al Patriarcado’.

> 21:45. ‘Placida Ye-Ye’: **DJ Kontzertua**

> 22.30. **Autobusen itzulera, Kursaaletik**

Egun osoan zehar:

> **‘Beldur Barik Lehiaketa’** gunea, lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusteko.

> **‘Truke Gune Feminista’** (talde feministen topalekua)

Puntu adostua eta indarkeriaren kontrako baterako Adierazpena

Herritarren artean izan duen harrera bikainari esker, ‘puntu lila’ emakumeen kontrako indarkeriak gizartean duen **arbuioaren ikur** bihurtu da. Irudi honen bitartez, indarkeria sexistan oinarritutako jarrera eta jokabide ororen kontrako gizarte osoaren jarrera adostua erakutsi nahi da.

Beste urte batez, Euskadiko udalek ‘puntu lila’ jarriko dute ikusgai beraien fatxada eta leihoetan, eta berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako Erakunde Adierazpen bat irakurriko dute. Oinarritzko testua Eudelen Batzorde Eragileak onartu du, eta Berdinsarea Sarean sartuta dauden udalen taldeko lanaren bitartez osatu da.

‘Sareko’ lanaren eredu

‘Beldur Barik!’ Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalen Sareak (**Berdinsarea**) bultzatutako ekimena da. 52 udalek osatzen dute aipatutako sarea, eta guztira EAEko herritarren %75 ordeztzen dute.

Berdinsarea 2005. urtean sortu zen, Eudelen eta Emakunderen arteko hitzarmen baten bitartez, Euskadiko udalek emakumeenganako indarkeriaren kontra emandako erantzunak sendotzeko asmoz.

Berdinsarea tokiko ekimenen **erreferentea** da, eta oinarritzko irizpideak proposatzen ditu ikuspegi partekatua lortzeko eta tokiko gobernuek berdintasun politiketan dituzten baliabideak optimizatzeko. Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea, udaletako ekimenak dinamizatzea eta koordinatzea, eta gai horretan egiturarik eta baliabiderik ez duten udalei euskarri teknikoa eskaintzea dira sarearen helburu nagusiak.

Besteak beste, udalerri guztientzako **Berdintasun Ordenantza** komun baterako eredu bat sustatzeko balio izan du Berdinsareak. Ordenantzaren testua Eudelek egin du, eta sarea osatzen duten udalek onartu egin dute. Ordenantza hori udalek beraiek egindako eskaera bat izan da, funtsezko tresnatzat hartzen baitute berdintasun politikak sustatzeko. Izan ere, udalerrietan gizarte arazo bihurtzen da desberdintasuna, eta udalak jabetzen dira, herritarrengandik hurbil dauden erakunde publikoak izanik, erantzukizun handia dutela emakumezko eta gizonezkoek beren herritar eskubideak berdintasunez erabiltzeko irtenbideen bilaketan.

EUDEL

Komunikazio Arduraduna

Responsable de Comunicación

Alma Moro 94 423 15 00/ 686 10 22 79